



Etapa Amaierako
EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
EVALUACIÓN DE DIAGNÓSTICO
de fin de etapa

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

ITEM LIBERATUAK

2018





OPORRAK

Miren, Andoni eta Bakarne oporretan Italiara joateko asmotan dira, lau asterako, alokatutako auto bat hartuta.



Autoen alokairuko enpresan informazio hau aukeratu dute:

Autoa	Erabilitako erregaia	Alokairua	Nahitaezko aseguru	100 km-ko kontsumitutako erregaia
 TATA	Gasola	190 € astean	190 €	5,5 litro
 SUSA	Gasolina	4 aste: 650 €	50 €	6 litro

Gainera, esan dietenez, oporraldian gasoilaren prezioa 1,1 euro/litrokoa izango dela, eta gasolinarena, 1,2 euro/litrokoa.

01

Miren, Andoni eta Bakarnek guztira 4 000 km egingo dituzte, gutxi gorabehera.

SUSA modeloa aukeratzten badute, zein izango da gastu osoa?

- A. 706 €
- B. 964 €
- C. 988 €
- D. 1 170 €

02

SUSA autoa hartuz gero gastu osoa (G) aztertuko du Andonik, egindako kilometro kopuruaren arabera (x).

Zein funtzio erabili behar du?

- A. $G = 700 + 1,2 \cdot 0,06 \cdot x$
- B. $G = 700 + 1,1 \cdot 0,06 \cdot x$
- C. $G = 700 + 1,2 \cdot 6 \cdot x$
- D. $G = 380 + 1,2 \cdot 0,06 \cdot x$

03

Mirenek TATA autoaren maletategia aztertu du. Publizitate-liburuxka batean haren neurriak ikusi ditu:



Zein da, gutxi gorabehera, maletategiaren bolumena, dezimetro kubikotan adierazita?

- A. 6 600 dezimetro kubiko.
- B. 660 dezimetro kubiko.
- C. 280 dezimetro kubiko.
- D. 600 dezimetro kubiko.

04

Italiara egindako bidaiari, guztira izandako gastua (autoa, hotelak, otorduak...) eurotan ordaindu dute. Gastuak honela banatzea erabaki dute: Mirenek laurdena ordainduko du, Andonik herena, eta gainerakoa, Bakarnek ordainduko du.

Bakarnek 1 500 euro ordaindu baditu, zein izan da gastu osoa?

- A. 3 600 €
- B. 2 275 €
- C. 3 500 €
- D. 3 800 €

05

Mirenek, Andonik eta Bakarnek itxasontziz txango bat erreserbatu dute. Taula honetan txangoetako prezioak adierazten dira, laguneko.

Itxasontzizko txangoak



Iraupena	Adin txikikoak (14 urte arte)	Helduak (14 urte baino gehiago)
1 ordu	22,50 €	39,00 €
2 ordu	42,50 €	73,00 €
3 ordu	60,00 €	100,00 €
4 ordu	78,00 €	129,00 €

Beraiek, beste turistekin batera, 12 kideko taldea osatu 3 orduko txangoa egiteko.

Taldeko kide batzuk adin txikikoak dira, eta gainerakoak, helduak. Guztira, 1 080 euro ordaindu dute txangoagatik.

Zenbat adin txikiko kide daude taldean?

- A. 2 adin txikiko kide.
- B. 3 adin txikiko kide.
- C. 4 adin txikiko kide.
- D. 9 adin txikiko kide.

ITEMEN EZAUGARRIAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

ITEMAREN ZENB.	01
DIMENTSIOA	1. Kantitatea
EBALUAZIO IRIZPIDEA	1. Zenbaki eta eragiketa mota ezberdinak eta haien propietateak erabiltzea, informazioak aztertuz eguneroko bizitzarekin lotutako problemak ebazteko testuinguruan.
LORPEN ADIERAZLEA	4. Zenbakien, eragiketen eta haien propietateen ezagutzak integratzen ditu, eta zenbaki mota ezberdin dauden problema eta ariketak ebazteko erabiltzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	988 €
ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	(Item irekietarako soilik)

ITEMAREN ZENB.	02
DIMENTSIOA	3. Cambios, relaciones, tratamiento de la información e incertidumbre
EBALUAZIO IRIZPIDEA	6. Egoera errealei lotutako funtzioen inguruko informazioa identifikatzea, adieraztea eta aztertzea, jokabideari eta bilakaerari buruzko ondorioak atereaz.
LORPEN ADIERAZLEA	2. Funtzioen grafikoak edo taulak dagozkien adierazpen aljebraikoekin erlazionatzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	$G = 700 + 1,2 \cdot 0,06 \cdot x$
ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	(Item irekietarako soilik)

ITEMAREN ZENB.	03
DIMENTSIOA	1. Kantitatea
EBALUAZIO IRIZPIDEA	3. Magnitudeak kalkulatzeko, elementu, forma eta multzokatze geometrikoen erabilera barne, egoera errealetatik abiatuta, eta neurketako formula eta unitate eta magnitudeen ordena egokiak erabiliz.
LORPEN ADIERAZLEA	2. Irudi eta gorputz garrantzitsuenen (triangeluak, laukizuzenak, zirkuluak, prisma, piramideak, zilindroak, konoak eta esferak) azalera eta bolumenak kalkulatzeko eta eguneroko testuinguruetan unitate zuzenak erabiltzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	660 dezimetro kubiko.
ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	(Item irekietarako soilik)

ITEMAREN ZENB.	04
DIMENTSIOA	1. Kantitatea
EBALUAZIO IRIZPIDEA	2. Ekuazioak, inekuazioak eta mota ezberdineko sistema aljebraikoak planteatzea eta ebaztea eskatzen duten eguneroko bizitzako eta arlo zientifikoko problemak ebaztea ebazpenaren berezko algoritmoak (metodoak) trebeziaz aplikatuz.
LORPEN ADIERAZLEA	3. Ekuazioak (lehen eta bigarren mailakoak) eta lehen mailako ekuazio-sistemak ebazten ditu, aljebra sinbolikoa erabiliz eta lortutako emaitzak interpretatuz.
ERANTZUN ZUZENA	3 600 €
ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	(Item irekietarako soilik)

ITEMAREN ZENB.	05
DIMENTSIOA	1. Kantitatea
EBALUAZIO IRIZPIDEA	2. Ekuazioak, inekuazioak eta mota ezberdineko sistema aljebraikoak planteatzea eta ebaztea eskatzen duten eguneroko bizitzako eta arlo zientifikoko problemak ebaztea ebazpenaren berezko algoritmoak (metodoak) trebeziaz aplikatuz.
LORPEN ADIERAZLEA	4. Lehen eta bigarren mailako ekuazioak, beste ekuazio mota batzuk (esponentzialak, logaritmikoak...) eta ekuazio-sistemak eta lehen mailako inekuazioak ebazten ditu, aljebra sinbolikoa erabiliz eta lortutako emaitzak interpretatuz.
ERANTZUN ZUZENA	3 adin txikiko kide.
ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	(Item irekietarako soilik)